


Hilkortasunaren bila



ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Ikerketa bat oinarri hartuta, misterioz betetako narrazio interesgarri eta originala delako. Istorio honetan, garrantzia dute, halaber, maitasunak eta askatasunak.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Hilezkortasunaren sendabidea aurkitzeko asmoarekin iristen da Eane Lurrera. Bere ikerketarako, lehenengo hilezkorretako bat eta izaki hilkor bat behar ditu. Azken mendeetan, arrakasta gabeko saiakera ugari egin dituzte hilezkorrek. Eanek, azkenean, Aimar (hilezkorra) eta Goon (hilkorra) eramaten ditu Urano-ra beren borondatez. Baina emaitzak ez dira onak: ez da sendabidea lortzen.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Mota guztietako irakurleentzat; izan ere, erraz irakurtzeko istorioa da eta argumentu oso erakargarria du. Bereziki, abentura eta zientzia fikzioaren zaleentzat.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BIKOTEA

Eskatu zure ikasleei, bikoteka, istorioaren edukiaren eskema bat egiteko. Eskema **hiru ataletan zatituko** da:

1. Planteamendua.
2. Korapiloa.
3. Amaiera.



TALDEA

Istorioan zehar, uneoro *horitasuna* aipatzen da. Zergatik aukeratu da kolore horia? Zergatik da horitasuna geroz eta bi-ziagoa? Zer esanahi dauka? Animatu ikasleak liburuan horitasunari egiten zaizkion aipamenak **bilatzera**, eta ondoren, bakoitzak irakur dezala aukeratu duena.



TALDEA

Izaki hilezkorretako batzuek ezin dute jasan betiko bizi-tza, zoratu egiten dira, eta Foboetan sartzen dituzte. Egin ikasleei **galdera**, hauek eta has ezazu eztabaida ikastaldean:

- Zergatik uste duzue ez dutela betiko bizi nahi?
- Nolakoak imajinatzen dituzue Fobos-ak?
- Zergatik uste duzue dutela izen hori?



BAKARKA

Animatu ikasleak berriz ere azken kapitulua irakurtzera; izan ere, ulertzeko zailenetakoa da. Ondoren, eskatu ikasleei irakurritakoaren gaineko hausnarketa egiteko, eta beren hitzekin, egin dezatela gertatu dena biltzen duen **laburpen** bat.

IDAZKETA-TAILERRA

Istorio honen amaieran, Aimarren esperientzia kontatzen da. Haren min eta beldurak desagertu dira, eta lasaitasuna aurkitu du. Aimar bere hasierako formara itzuli da, zelula bat da. Asma dezatela zure ikasleek istorioaren **hautazko amaiera** bat.